

Legazpiko Agenda 21eko Foroaren akta

2017ko abenduaren 14an, 18:00etatik 20:00etara, Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan



MERKATARITZA LEGAZPIN:

DIAGNOSTIKOA ETA ETORKIZUNEN PROIEKTUAK

1_Esparrua eta tailerraren helburuak

2017ko azkeneko tailerrean Legazpiko merkataritza izan dugu hizpide. Horrela, Udala udalerriko merkataritza biziberritzeko Plana -PERCO- lantzen ari da, Ikerpartners enpresako talde teknikoaren laguntzarekin.

Momentuz, diagnostikoa egin da –eskaria eta eskaintza aintzat hartuz–; eta herriko merkataritza biziberritzeko eta sendotzeko datozen urteetan bultzatuko diren proiektuak eta lan-ildoak definituko dituen ekintza-plana planteatzeko urratsak ematen hasi da.

Oinarria hori izanik, gaurko Agenda 21eko tailerrak 2 helburu izan ditu:

- 1- Egindako diagnostiko teknikoaren emaitza aurkeztu eta kontrastatzea eta ñabardura berriak sartzea; bereziki Legazpiko gazteen ikuspegia aintzat hartuz.
- 2- Diagnostikoak Legazpiko merkataritza guneak sendotzeko planteatzen dituen erronka batzuk esploratzen hastea.

Segidan, bilera nola joan den eta emaitza nagusiak jasoko ditugu, puntuz puntu.

2_Parte hartu duten pertsonak



Legazpiko Agenda 21eko Foroa espazio irekia da, gero eta pertsona gehiago biltzea nahi duena, ikuspegi, profil, ezagutza,... desberdinak dituzten pertsonak eta lantzea proposatuko diren gai bakoitzaren arabera.

Horren haritik, Udalak ahalegin berezia egin du gaurko tailerra osatzeko eta merkataritza gaiarekin lotura berezia duten kolektibo eta bizilagunak bertan parte hartzera gonbidatu ditu. Horrela, tailerrean izan dira hainbat merkataritza eta ostalari –sektore horretan lan egiten dutenentzako bileraren ordua egokia ez bada ere–; bestalde, Olazabal institutuko eta Haztegi ikastolako batxilergoko ikasleek hartu dute parte eta Legazpiko merkataritzari buruzko euren hausnarketa partekatu nahi izan dute gainerako kideekin.

Guztira, 25 pertsona, 13 emakume eta 12 gizon.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Guztioi, eskerrik asko! Begirada eta profil aniztasunak aberastu egiten du Foroa eta gaur nabarmena izan da hori!

Bizilagunak:

Manuel Fernandez (Nagusilan) – Victoria Andrés y Begoña Santillan (Iratzarri) – Rafael Gomez (Buskabaso) – Juan Mari Usabiaga – Pedro Agirre – Silvain Pernet (ostalaria).

Legazpiko ikastetxeetako ikasleen ordezkariak:

Maite Odriozola (Haztegi ikastolako irakaslea) – Gorka Blazquez, Asier Ureta eta Erik Retolaza (Haztegi ikastolako ikasleak) - Koro Zabaleta (Olazabal institutuko irakaslea) – Asier Leizeaga eta Irian Gonzalez (Olazabal institutuko ikasleak).

Udal arduradun eta teknikariak:

Eric Galvez (zinegotzia) - Javier Iraeta (zinegotzia) - Oscar Valbuena (zinegotzia) - Koldobike Olabide (alkatea) – Ana Martin (zinegotzia) - Inma Hernandez (industria, merkataritza, turismo eta ingurumen teknikaria) – Maria Pavón (Urola Garaiko merkataritza bulegoko arduradun teknikoak).

Laguntzaile teknikoak:

Elena Eizaguirre eta Gorka Goikoetxea, Legazpiko merkataritza biziberritzeko plan berezia lantzen ari diren Ikerpartners taldeko kideak.
E Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea, dinamizazio-lanetan.

3_Landutako edukiak

Gazteei entzun diegu tailerraren hasieran: Nola ikusten dute herriko merkataritza?

Foroan aztertuko zen gaiaren berri izatean, Haztegi ikastolak eta Olazabal institutuak batxilergoko ikasleekin Legazpiko merkataritzari buruz hausnarketa egiteko interesa agertu zuten.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Udalak hausnarketa hori egiteko baliagarriak izan zitezkeen galderak prestatu eta bidali zizkien eta horiei erantzuten saiatu dira; galdera horiei Foroan bertan sortu diren gaiak gehitu dizkiegu.

Ondorengo koadroak tailerrean parte hartu duten gazteekin partekatu diren ideia nagusiak bildu dira:

Herriko merkataritzari buruz, Legazpiko batxilergoko ikasleek egindako hausnarketa:

Zein 3 adjektibo erabiliko zenukete Legazpiko merkataritza definitzeko?

- Sinplea –aukera gutxi-.
- Eskasa.
- Garestia.
- Mugatua –aukera gutxi-.
- Hurbila.

Foroko kideek ondorengo adjektiboak gehitu dituzte:

- Hurbila.
 - Konprometitua.
 - Kalitatezkoa (aukera handia eskaintzen ez duen arren).
 - Adeitsua.
- **Legazpin erosten duzuenean, zer da baloratzen duzuen?**
 - Dirua hemen uzten dugula, gure bizilagunei.
 - Erosketak herrian bertan egin ahal ditugula.
 - Euskaraz erosteko aukera dugula.
 - Kalitatea.
 - **Zer gehiago eskatuko zenioke Legazpiko merkataritzari, hemen erosketak gehiago egiteko?**
 - Oro har aukera gehiago; eta, bereziki, mutilentzako arropa eta teknologia berriak.
 - Eta prezio aukera zabalagoarekin –arropan batez ere, orain dagoena, oro har, nahiko garestia delako modako marka handiek eskaintzen dituzten prezioekin alderatuta; normala da zertxobait garestiagoa izatea, dendak mantendu ahal izateko baina aldea esanguratsua denean kate handietara jotzen dugu-.

- Erosterakoan, zein da zuen lehenengo joera? Erosketa fisikoa edo online?
 - Guk erosten ditugun produktuak –arropa, teknologia berriak bideo-jokoetan, mugikorrenzako osagarriak,....-, Internet bidez erosteko ohitura dugu eta hainbat dira horretarako arrazoiak: prezioa (alderdi inportantea da), eskaintza eta aukera handiagoa, hurrengo egunean etxean jasotzearen erosotasuna, deskontuak, ...
 - Beste produktu batzuk erosteko interesgarria da herriko dendan erosi eta produktuarekin etxera itzultzea. Adibidez, laguntzako opariak erosten ditugunean.
- Eta hemengo dendek online erosteko aukera eskainiko balute, erabiliko zenukete aukera hori?
 - A priori eta oro har ez, errazagoa delako dendara joatea eta erostea. Erosketa berehalakoa da.
 - Agian erakusleihu birtual edo digitala izatea ideia ona izan daiteke arropa dendentzako, sarritan herriko dendan sartuz gero, zerbait erosita irteteko konpromisoa sentitzen delako –eta horrek sartzea galarazten du-.
- Nola uste duzu erosiko dugula hemendik 10 urtera?
 - Online erosketak dronen bidez egingo direla esaten da – Amazonek dagoeneko egiten du-.
 - Baina gure ustez ez dira denda fisiko guztiak desagertuko.
- Gero eta gehiago hitz egiten da erosteko esperientziaz: nolakoa izan da zuen esperientzia Legazpiko dendetan?
 - Gertutasuna eta konfiantza baloratzen ditugu.

Hausnarketa interesgarriak dira eta gure udalerriko merkataritzari buruzko begirada, errealitate eta ikuspegi desberdinen gaineko elkarrizketa sorrarazi dute. Eskerrik asko!

Ikuspegi teknikoarekin jarraitzen dugu: **Zein dira merkataritza biziberritzeko planaren diagnostiko teknikoaren ondorioak?**

Gorkak eta Elenak diagnostikoaren aurkezpen zehatza eskaini dute eta zenbait ideia azpimarratu nahi ditugu. Diagnostikoa Udalak duen agirian kontsultatu daiteke.

Diagnostikoa egiteko 250 inkesta egin zaizkie kontsumitzaileei eta 401 fluxuen zenbaketak egin dira. Diagnostikoan, alde batetik eskaera aztertu da –zer erosten dugun Legazpin, non,....– eta bestetik eskaintza –herriko merkataritza, bilakaera,.....–

Merkataritza Biziberritzeko Planaren (PERCO) markoan Ikerpartners aholkularitzak egindako Legazpiko merkataritzari buruzko diagnostiko teknikoak emandako zenbait ideia:

- **Eskariari dagokionean:**
 - Testuinguruari buruzko datu esanguratsu bat: 2007 eta 2015 bitartean, pertsonako merkataritza-gastua % 8,3 jaitsi da Euskal Autonomia Erkidegoan. Erosketen tipologia irerparatuz, etxeko salgaietan nabaritu da beherakada handiena.
 - Internet bidezko erosketak Legazpin: inkesta erantzun dutenen % 41,5ak erosi du zerbait Internet bidez azken urtean.
 - Gastu-ihesa: zenbat gastuk egiten du "ihes" Legazpitik? Inkestako datuek diote % 16,5a dela gastu-ihesa. Datu honek jarduera guztiak hartzen ditu kontutan, ostalaritza barne. Beraz, Legazpiko merkataritzak erosketen % 83ari eusten dio.
Datuak sektoreka xehatuz gero, ehunekoak aldatzen dira: gastu-ihes handiena ekipamendu pertsonalaren salmentak du (arropa...), % 43,3a, hain zuzen; eta txikiena, aldiz, zerbitzuek (ile-apainketa eta bestelako zerbitzuak), % 3,2a.
Gastu-ihesa beste eskualde batzuetara doa: batez ere, Donostiara eta haren ingurura, Olaberria-Beasain eta Zumarraga-Urretxu eremuetara eta, neurri txikiagoan, Internet bidezko erosketetara.
 - Gastu-erakartzea: legazpiarren urteko gastuaren ehunekoarekin alderatuta, bertako merkataritza kapaz da beste herrietako pertsonengandik % 3,5 gehiago biltzeko.
 - Ondorioz, gastu-erakartzearen eta gastu-ihesaren arteko aldea % -13koa da, ihesaren alde. Ikuspuntu teknikotik ihesa kontrolatuta kontrolatutzat ematen da.
- **Eskaintzari dagokionez:**
 - Hirugarren sektoreko 141 saltoki ditu Legazpik: 104 denda eta 37 ostalaritza-establezimendu. Bi azpisektoreok beherako joera dute.
 - Merkataritzako enpresarien profilaria dagokionez 55 urtetik gorakoak (% 23) eta ondorengotzarik planifikatu ez dutenak nabarmentzen dira.
 - Inkesta erantzun dutenek Legazpiko merkataritzaren egoerari 3,1eko balorazio orokorra eman diote, 1etik 5erako eskalan-.

Datuak aurkezteak solasaldi interesgarria sortu du Foroan. Hona hemen jaso diren ideia nagusiak:

Foroaren solasaldia diagnostiko teknikoko datuen gainean:

- Deigarria da, zuhurregia delako agian, merkataritzako gastu-ihesaren datua.
 - Foroak pentsatzen du gastu hori handiagoa dela, beste udalerrietara eta online erosketetara doalako.
 - Datu horretan ostalaritzak eragina handia duela ikusten da.
- Edozelan ere, Foroak honako eskaria egin dio diagnostiko teknikoan egin duen lantaldeari: datuak azpisektoreen arabera bereiztea, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak bereiziz.

Eta eztabaida kontu zehatz batekin osatzen dugu: **nola hobe daiteke pertsonen jarioa Legazpiko 2 merkataritza-guneren artean – hirigunea eta Laubide-?**

Ikerpartners enpresako taldeak argi adierazi duenez, Legazpik ongi zehaztutako 2 merkataritza-gune ditu: hirigunea eta Laubide. Ekintza-planean aztertu beharreko lan-ildo bat pertsonen jario handiagoa sustatzea da, hirigunetik Laubide auzorantz.


Kontu horri dagokionez, Foroak aintzat hartu beharreko emaitza interesgarriak eskaini ditu eta horiei esker baliteke proposamen ildo hori berriz aztertu behar izatea:

Foroaren ekarpena:

- Erronka agian ez da hirigunearen eta Laubide auzoaren arteko pertsonen jarioa sustatzea, Legazpin egingo diren erosketa-kopurua handitzea baizik, gastu-ihesa murriztuz -produktu batzuen kasuan bereziki-.

Eta ekarpen interesgarri horrekin tailerrerako denbora agortu zaigu eta amaitutzat eman dugu gaurko bilera.

Hona hemen partekatu dugunaren laburpena.



4_Agur esaten dugu 2018ra arte

Eta, indarberrituta, Legazpiko Agenda 21eko Foroaren orri zuri berri bati ekingo diogu.

**Ordura arte, ondo baino hobeto igaro gainean ditugun jaiegunak!
Eskerrik asko guztioi!**